

Editorial

Editoriala



Ignacio Díez López

Querido lector y compañero de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría:

Año 2020, una palabra invadió nuestro día a día: COVID. Año 2021, otra nueva (vieja conocida de nosotros, los pediatras) lo impregna todo de esperanza: VACUNAS.

Si el año pasado la población se volvía una “experta” en índices Ro, transmisión, medidas de higiene..., este año parece que lo es en tasas de vacunación, efecto rebaño, carga de anticuerpos, etc. Lenguajes que a los pediatras no nos son nada extraños, todo lo contrario.

Nuestra especialidad es la que abandera en medicina la importancia de la vacunación, la cual ha permitido erradicar algunas enfermedades infecciosas, reducir la frecuencia de muchas y la gravedad de otras en una población especialmente sensible: la infancia..., siendo reconocida esta, la vacunación, como una de los mayores avances médicos de la Humanidad. Qué lejos queda, o cerca, la llamada Expedición Balmis. **La Real Expedición Filantrópica de la Vacuna** duró de 1803 a 1806, promovida por Carlos IV, cuyo objetivo era llevar la vacuna de la viruela a los territorios de ultramar del Imperio Español y que acabó convirtiéndose en una de las expediciones científicas más exitosas de todos los tiempos. La enfermera pediátrica Isabel Zendal fue una enfermera española, rectora del Orfanato de la Caridad de La Coruña y pieza clave de esta expedición. Hoy da nombre a un famoso Hospital nacido en el calor de esta pandemia.

No podemos olvidar estos hechos y, como pediatras, debemos reafirmarnos en lo que siempre hemos luchado, por una vacunación universal y global de nuestros pequeños pacientes. Espero que estos tiempos sirvan para poner en su sitio a los negacionistas, familias (y sanitarios) antivacunas y demás “especies” que en los últimos años estaban provo-

Euskal Herriko Pediatria Elkarteak irakurle eta adiskide maitea:

2020. urtean, hitz batek inbaditu zuen gure egunerokoa: COVIDa. 2021. urtean, beste hitz batek —guretzat, pediatrontzat, aspaldiko ezaguna— itxaropenez blaitu du dena: TXERTOIA.

Iaz, biztanleak «aditu» bihurtu ziren R0 indizeetan, transmisioan, higie-neurrietan... Aurten, berriz, badirudi beste gai batzuk direla nagusi: txertaketa-tasak, talde-efektua, antigorputzen karga eta abar. Baina pediatri ez zaizkigu arrotz egiten hitz horiek, guztiz kontrakoa.

Gure espezialitatea aitzindari da, medikuntzaren arloan, txertaketaren defentsan, eta, horri esker, gaixotasun infekzioso batzuk desagerrarazi dira, eta gaixotasun askoren maiztasuna eta beste batzuen larritasuna murriztu da, bereziki kalteberak diren biztanle batzuenengan: haurrengan. Txertaketa gizadiaren aurrerapen mediko garrantzitsuenetakotzat jotzen da. Urrun geratzen da, edo hurbil, Balmis espedizioa deritzona. **Txertoaren Errege Espedizio Filantropikoa** 1803tik 1806ra egin zen, Carlos IV.ak sustatuta. Xedea zen baztangaren kontrako txertoa eramatea Espainiar Inperioaren itsasoz haraindiko lurraldeetara; baina, azkenean, inoiz egin den espedizio zientifikorik arrakastatsuenetakoa izatera iritsi zen. Espedizio horretako funtsezko kidea izan zen Isabel Zendal erizain pediatriko espainiarra, A Coruñaako Karitateko Umezurztegiko errektorea. Gaur egun, haren izena dauka pandemiaren zurrumbiloan sortutako ospitale batek.

Ezin ditugu ahaztu gertaera horiek eta, pediatrik garen heinean, gure borrokaren ardatz izan dena berretsi behar dugu: gure paziente txikien txertaketa unibertsal eta orokorra. Espero dut garai hauek baliagarriak izatea dagokien lekuan jartzeko ukatzaileak, txertoen aurkako familiak (eta osasun-langileak) eta osasun publikoaren eta haurren osasunaren arloan hainbeste esfortzuekin lortutako mugarrietan azken urteetan atzerapen

cando un retroceso notable de hitos de salud pública y salud infantil conseguidos con tantos esfuerzos. Ahora debemos velar porque nuestros más pequeños no solo no pierdan todo lo conseguido en su calendario vacunal sino ampliar este en la medida que la medicina basada en la evidencia lo permitan. Al calor de esta lucha en pro de la salud, se han asociado otras campañas en esta época de pandemia, como la anti-tabaco en lugares públicos, donde suele haber con frecuencia infancia.

Hace tan solo un año, cuando ojeábamos el anterior *Boletín*, nadie podría imaginar el cambio que en nuestras vidas, profesionales y personales, tan solo una palabra, COVID, podría llegar a suponer.

Debates previos en torno a cómo debe ser el proceso de selección y provisión de nuevos pediatras, la incertidumbre que genera la Estrategia de Atención Primaria, el reconocimiento insuficiente de las subespecialidades pediátricas, la cartera de servicios, la falta de recursos humanos (pediatras), sobre todo (aunque no exclusivamente) en Atención Primaria, la (re)distribución de los mismos, etc. parece que han quedado relegados a un segundo plano. Los pediatras hemos estado este año 2020 donde se nos ha requerido, reforzando puestos, acudiendo desde el Hospital a la AP, brindando atención.

Este año, el COVID y su vacunación nos ha permitido juntarnos “un poco más” y se han recuperado encuentros científicos, la Sociedad ha seguido viva.

Prueba de ello es la reunión telemática de abril de Vitoria (X memorial) (este número recoge sus resúmenes), la semipresencial científica de Donosti de noviembre y, así mismo, los múltiples trabajos originales, casos clínicos y revisiones que los socios nos hacen llegar con la acostumbrada calidad científica.

Gracias a todos por el trabajo y el esfuerzo

Esperando que este número sea de tu agrado, os mando un afectuoso saludo.

Ignacio Díez
Director del Boletín

nabarmena eragiten ari diren gainerako «espezieak». Orain, gure txikienek txertaketa-egutegiarekin lortutako guztia ez galtzea bermatu behar dugu, eta egutegi hori zabaldu behar dugu, ebidentzian oinarritutako medikuntzak horretarako aukera ematen duen neurrian. Osasunaren aldeko borroka horren babesean, pandemia-garai honetan beste kanpaina batzuk egin dira, hala nola leku publikoetan erretzearen aurkako kanpainak, leku horietan maiz haurrak egoten baitira.

Duela urtebete besterik ez, aurreko aldizkaria irakurtzen ari ginela, inork ere ez zuen imajinatuko nolako aldaketa ekarriko zuen gure bizitza profesionalera eta pertsonalera hitz bakar batek: COVIDak.

Pediatra berriak hautatzeko eta haietaz hornitzeko prozesuari buruzko eztabaidak; Lehen Mailako Arretako Estrategiak sortzen duen ziurgabetasuna; pediatriako azpiespezialitateen aintzatespen eskasa; zerbitzu-zorroa; giza baliabiderik (pediatrarik) eza, batez ere (baina ez soilik) Lehen Mailako Arretan; giza baliabide horien (bir)banaketa... bigarren maila batean zokoratuta geratu dira gai horiek, dirudienez. 2020an zehar, eskatu zaigun lekuan egon gara pediatrok: behar ziren postuetan lagundu dugu, ospitaleetatik Lehen Mailako Arretara joan gara eta arreta eskaintzen aritu gara.

Aurten, COVID-19ak eta haren kontrako txertaketak «apur bat gehiago» hurbiltzeko aukera eman digute, eta topaketa zientifikoak berreskuratu dira. Elkarrekin bizi-bizirik jarraitu du.

Horren erakusgarri dira Gasteizko apirileko bilera telematikoa (X. memoriala: aldizkari honek haren laburpenak jasotzen ditu), Donostiako azaroko bilera zientifiko erdipresentziala eta bazkideek ohiko kalitate zientifikoarekin helarazten dizkiguten lan originalak, kasu klinikoak eta berrikuspenak.

Eskerrik asko denoi egindako langatik eta ahaleginagatik.

Espero dut zenbaki hau zure gustukoa izatea. Adeitasunez, agur.

Ignacio Díez
Buletinaren zuzendaria